

begira



33 zk.
2015eko apirila



Elkarrizketa Josemari
Arozenari. ULMA
Orga Jasotzaileetako
lehendakaria

ULMA Handling Systemsek
Eroskirentzat garatutako
plataforma logistikoa
automatizatu du; aitzindari
da European



Gara





ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.
ULMA Architectural Solutions, **Drainatzeko soluzioak** Municheko BAU Azokan.


ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.
ULMA Conveyor Componentsek **Txirrikak** jarri ditu **Txileko Codelco Chuquicamata** meategirako.



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.
ULMA **Lazkao Forgingen kalitatea eta espezializazioa** nabarmendu dira Valveworliden.



ERREPORTAJEA.
Kualifikazio profesionala: erronka, aukera.



ERREPORTAJEA.
ULMA Handling Systemsek **Eroskirentzat garatutako plataforma logistikoa automatizatu du; aitzindari da European.**

2015eko apirila

04 **albisteak eta gaurkotasuna**
ULMA Agricola, hotzaren aurkako babesik onena.

TREXiA orga berriak, lanerako diseinatuak... irauteko eginak.

ULMA Experienceren arrakasta Erroman.

ULMA Packagingek filiala ireki du Turkian.

16 **aurrez aurre**
Josemari Arozena. ULMA Orga Jasotzaileetako lehendakaria.

18 **erreportajea**
ULMA Taldeak irudi korporatibo berria aurkeztu du, bere Negozioei eraginkortasun handiagoz laguntzeko.

22 **erreportajea**
Kualifikazio profesionala: erronka, aukera.

24 **erreportajea**
ULMA Handling Systemsek Eroskirentzat garatutako plataforma logistikoa automatizatu du; aitzindari da European.

26 **agenda eta iradokizunak**



KOLABORATZAILE TALDEA:

Nora Altube, Joseba Alberdi,
Elena Goirizelaia, Maria Sendin,
Irene Moreno, Edurne Unzueta,
Romu Artecheta eta Karlos Alzola.

Argitaratzailea:

Grupo ULMA S. Coop.,
Garagaltza auzoa 51 - 22 p.k.
20560 OÑATI.

Tel.: 943 25 03 00

Faxa; 943 78 09 17.

e-maila: begira@ulma.com.

Diseinua eta Maketazioa:

Marka, Komunikazio eta EES Arloa.

Inprimategia: Gertu S. L.

Euskarazko itzulpenak: EMUN Koop.E.



Paper ekologikoa

ULMA TALDEA

Amaitu da ULMA Taldeko bazkide langileak 'Berria' egunkarira harpidetzeko kanpaina

Harpidetza egiteko amaitu berri den kanpaina ULMA Taldeko Euskara Batzordeak egindako proposamenaren ondorioz ULMA Taldeak eta Berria egunkariak 2007an izenpetutako lankidetzaren hitzarmenaren ekintzetakoa da.

Kultura eta euskara babesteko eta sustatzeko konpromisoaren barruan, ULMA Taldeak lan ingurunean ere euskararen normalizazioa lortu ahal izateko neurriak bultzatzen ditu. Ildo horretan, urtearen hasieran, ULMA Taldeko bazkide eta langileek aukera izan zuten Berria egunkariaren harpidetzaren erdi prezioan egiteko.

Kanpaina ULMA Taldeak euskara egunerokotasunaren parte izan dadin sortu eta mantendu nahi duen esparruaren barruan dauden ekimenen adibideetakoa da eta, kasu honetan, euskaraz irakurtzeko ohitura sortzeko bitartekoak bermatu nahi ditu, egunkaria ahalik eta irakurle kopururik handienera hurbiltzeaz gain. Gaur-gaurkoz, harpidetzeko kanpaina aprobetxatu zuten bazkideak dagoeneko ari dira disfrutatzen etxeko postontzian Berria egunkaria jasotzeko dakarren abantailaz.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA Architectural Solutionsek 25 urte beteko ditu soluzio eraikitzaile berritzaileak eskaintzen

Aurten urteurren berezia ospatuko da eraikuntzaren sektorearentzat: ULMA Architectural Solutionsek 25 urte betetzen ditu bere jardueran, bete-betean lanean, eta nazioarteko proiektu geldiezina.

Tailerretik industriara

Enpresa ULMA Taldearen baitan sortu zen, eta bertan fabrikatu ziren 1990ean polimero hormigoizko drainatze kanalen lehendabiziko piezak. Urte batzuen buruan lehen inbertsio teknologikoak egin ziren, eta eraikuntzako soluzio berriak garatzen hasi ziren, negozioaren ikuspegia beste merkatu nitxo batzuetara zabaltzeko. Horrela sortu ziren aurrefabrikatu arkitektonikoak (leiho isurkiak eta gailurrak) eta fatxada aireztatuaren sistema berritzaileak. Hainbat urtez hazi zelarik, tailer txikia izatetik 2005ean 12.000 m²-ko fabrika bat duen industria izatera igaro zen.

Nazioartekotzea

2009. urtean, hainbat urtetako esperientziari esker lortutako pertsona talde kualifikatuarekin, teknologiarekin eta know-howarekin, ikuspegi estrategiko berria landu eta nazioartekotzeko politika ezarri zuen, mundu gero eta globalizatuago batera zabaltzeko.

Gaur egun, ULMA Architectural Solutions, bizkarrean mende laurdena duen enpresa, sektorearen erreferentzia da Espainian, eta filialak ditu Portugal, Frantzia, Brasil, Mexiko eta Italian, eta banatzaileen bitartez mundu zabaleko 20 herrialde baino gehiagotan du presentzia.

25. urteurrena ospatzeko logo bat sortu da, negozioaren paper gauzetan eta euskarrietan erabiltzeko, eta Batzorde bat eratu da, ospakizuna lantzeko hainbat ekitaldi antolatuzko.

ULMA PACKAGING

ULMA Packagingek filiala ireki du Turkian

2015AREN HASIERATIK, FILIAL BERRIA GUZTIZ OPERATIBO DAGO.

Güneş Özmen turkiar filialeko zuzendaria, Istanbulen kokatutako bulego berrien bitartez, lanean ari da zerbitzua hobetzeko eta bezeroekiko harremanak sendotzeko helburuarekin.

Turkiako merkatua hainbat urtez oso dinamikoa izan da ULMArentzat, eta gure sektore nagusietan hazteko potentzial handia erakusten du, esaterako, elikagai freskoei lotutakoetan.

Aipatu daiteke ULMA Packagingek Turkian duen DUBA banatzaileak gurekin lankidetzan jarraituko duela, azken urteetan egin duen bezala.

Urteari FOTEG azokan presentzia propioa izanez eman diogu hasiera (martxoak 5-8), eta bertan gure soluziorik aurreratuenak erakutsi ditugu erretailuen termozigilatzearen eta flow packen arloan, ULMA Ambalaj izenarekin jarri dugun standean. Horrez gain, DUBAren standean, film zabalgarrian biltzeko prestazio handiko makina ere erakutsi dugu.

ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

Betekizunen Ingeniaritzako profesionalak ULMA Embedded Solutionen

ULMA Embedded Solutioneko hamar ingeniariak Betekizunen Ingeniaritzako Ziurtagiri Profesionalaren titulua lortu dute, Foundation Levelen eskutik, IREB ziurtagiriaren arabera (International Requirements Engineering Board). Titulu horrekin, Betekizunen Kudeaketa eta Definizioaren bizi zikloaren alderdi nagusiak ezagutzen dituztela egiaztatze dute.

Horrenbestez, ULMA Embedded Solutionek bere taldea hobetzearen alde egiten jarraitzen du, bere bezeroentzako g a r a p e n e n e t e n g a b e k o h o b e k u n t z a r i b e g i r a .



ULMA HANDLING SYSTEMS

Orklik eta ULMA Handling Systemsek trazabilitate sistema bat diseinatu dute produkzioa eta logistika denbora errealean kontrolatzeko

Innovative solutions connecting businesses



ORKLIK E-KANBAN proiektuari ekiteko izan duen arrazoia izan da bezeroari zerbitzu logistiko ezin hobea, zehatza eta denbora errealekoa emateko aukera, zerbitzuan itxaron beharrik gabe.

Orklin ezarri den Kanban sistema e-Kanban sistema erabilerraza da, webean oinarritua, entrega epeak eta stocka murrizteko helburua duena eta, finean, bezeroa leialtzea. Proiektuaren garapenak bermatu egiten du materialen mugimendu guztiak RFID sistema batez kontrolatzen direla, eta horrek aukera ematen du informazio guztia denbora errealean eskuratzeko eta, beraz, prozesuak optimizatzeko eta inbentarioa

monitorizatzeko.

Bezeroarenganako zerbitzua nabarmen hobetu da sistema horren bitartez, materialaren kontsumoaren hornidura material hori Orklik bezeroarenganaino garraiatzeko behar den denboraren mende baino ez baitago. Horri esker, materiala bezeroari entregatzeko epea zein bezeroak behar duen stocka murriztu egiten dira.

Gainera, bestelako esfortzurik egin behar izaterik gabe, bezeroak segurtatu egiten du kontsumitu behar duen materiala behar duen unean iritsiko dela, eta bere materialaren egoerari buruzko informazioa une bakoitzean ikusi ahal izango du, online eta guztiz eguneratuta.

ULMA PIPING

ULMA Lazkao Forgingek OSHAS 18001 Ziurtagiria lortu du

ULMA Lazkao Forgingek Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko ezarri duen sistemak OSHAS 18001 ziurtagiriaren aitortza jaso du. ULMAko kolektibo osoak lanpostu bakoitzari lotutako arrisku posibleak identifikatu, ebaluatu eta kontrolatzeko egindako lanak bere laneko prebentzio eta segurtasun sistema ekarri du emaitzat.

Joan den urtean Lloyd Registerrek egindako ikuskapenak legedia

betetzen dela berresten du, ULMA Lazkao Forgingeko ekoizpen prozesu guztietan integratutako prebentzioari dagokionez.

OHSAS 18001 Ziurtagiriak Laneko Segurtasun eta Osasun politika egokia egiaztatzen du, eta enpresaren jardueraren garatzeko etengabeko hobekuntzan langile guztiak duten inplikazioa agerian jartzen du.





ULMA AGRICOLA

ULMA Agricolak berotegiak instalatu ditu basamortuan

Klimaren baldintzen, ur faltaren eta tenperatura altuen ondorioz, nekazaritzako ustiatzearen garapena oso zaila gertatzen da basamortuko klimetan.

Instalazio produktiboek teknifikazio maila handia eskatzen dute, ekipamendu eta soluzio egokiek, labore bakoitzak klimaren aldetik behar dituen beharrak asetzeko.

ULMA Agrícola Ekialde Ertainean egiten ari den azken instalazioak erantzun egiten die premia horiei, bai nabeetarako proposatutako banaketarekin, bai klimatizaziorako

erabili diren ekipamenduekin.

Proiektuak 2 hektarea inguru okupatzen du, barazkiak lantzerantz zuzenduta, eta 2 modulutan banatu da. Instalazioan erabili den berotegi modelo Multikapera Makotua da, polikarbonato zelularrez estalia, eta ez du inolako aireztapenik, ez naturalik ez pasiborik. Berotegiak cooling panelen eta xurgagailuen eta fog system-en konbinazio batekin hornitu da, barruko giroa hezetzeko eta hozteko. Cooling panelak bi moduluak konektatzen dituen nabe zentral batean kokatuta daude; nabe horrek bakarrik dauka aireztapen

zenitala, eta barruko airea berritzea ahalbidetzen du eta berotegi barruko tenperatura hoztea, aireari horma hezeetan zehar bultzatuz.

Bi moduluen ekipamendua osatzeko itzala emateko pantaila bat, airea birzirkulatzeko gailuak eta ureztatzeko sistema instalatu dira. Horiek guztiak uztartuta, barazkiak lantzeko barne klima egokia izatea lortu da.

ULMA PACKAGING

Argiztapen perimetraleko sistema berria led bidez

ULMA PACKAGINGEK GARIBAIKO PLANTAREN PERIMETROA ARGIZTATZEN DUTEN KANPOKO FAROLAK LED LANPAREKIN ORDEZTU DITU.

85 W-eko 42 farola dira, eta lehenago 250 W-eko lanparak zituzten argi zutoin guztietan instalatu dira.

Gainera, lanpara berrien bizitza teknikoak 5 urtekoa da, eta aurrekoena urte eta erdikoa zen.

Inbertsioak diru laguntza izan du, eta %77,08ko aurrezpena dakar kontsumoari dagokionez, hau da, urtero 900 € baino gehiago aurreztuko da, mantentze lanetarako kostuen murrizketa kontuan hartu gabe.



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

Hornidura kontratua Alemaniako Vattenfallekin

2014an lortutako homologazioaren ondoren, ULMA Conveyor Componentsek kontratu bat lortu du Alemaniako Vattenfall talde energetikoaren meatze eta zentral termikoak arrabolez hornitzeko. Kontratuak 2015etik 2019ra arteko aldia hartuko du, eta urtero berrikusiko da.

Vattenfall Europako talde energetikorik handienetakoa da, Suediako gobernuaren jabetzakoa, eta operazioak egiten ditu Eskandinavia, Alemania, Holanda, Frantzia eta Erresuma Batuan. Vattenfall Alemaniaren ekoizpenaren %87 inguru erregai fosiletatik dator, eta batik bat konpainiaren jabetzakoa diren lignito meategietatik erauzten dira (Jänschwalde, Nochten eta Welzow).

ULMA Conveyor Componentsek gama altuko arrabol berri bat garatu du, bezero horrentzat bereziki, abiarazteko esfortzu, dinamika, soinu eta eszentrikotasunari buruzko eskakizun guztiak betez (TIR eta MIS).

Bezerorik zorrotzenetako batek gama altuko arrabol berria homologatzea lortzeko bultzada handia ekarriko du Alemanian etorkizunerako ditugun planetarako, eta Alemaniako gainerako talde energetikoetan sartzen lagunduko digu.



ULMA ORGA JASOTZAILEAK

TREXiA orga berriak, lanerako diseinatuak... Irauteko eginak

ULMA Orga Jasotzaileak Mitsubishien TREXiA diesel orga kontrapisatuen gama berria aurkeztu du merkatuan, bi seriez osatua: TREXiA ES, 7 tonako orgak, eta TREXiA EX, 10-16 tona kargatzeko ahalmenarekin.

TREXiA ES serieko FD70N berriaren ezaugarria da turbo motor bat duela, erregai kontsumo urria lortzeko diseinatu, baina produktibitatea sakrifikatu gabe, izan ere, eraginkortasuna %14 handiagoa da aurreko belaunaldiko motorrekin alderatuta, nabarmen gaitzen duelarik igorpenei buruzko Stage IIIB europar araudia. Gainera, turbokonpresore trinko bat dauka, erregaiaren erabilera %18 murrizten duena.

TREXiA EX serieari dagokionez, berriz, ES serieak gehitu dituen berritasun guztiak dauka, eta gainera kontrolerako bi sistema hautatzeko aukera ematen du, organ errendimenduen profila egiten ari den lanaren behar zehatzetara egokitzea ahalbidetzen duena. Modu estandarrean, erregaia %14 aurreztea

lortzen da, aurreko modeloekin alderatuta, eta produktibitatea %95era arte mantenduz; 'ECO' moduari dagokionez, berriz, azelerazioan eraginkortasun bikaina lortzea ahalbidetzen du, abiadura murriztu gabe.



ULMA PACKAGING

TSA 87 termozigilatzaile automatiko berria

TERMOZIGILATZAILE HIGIENIZAGARRIEN TSA GAMAREN BARRUAN, ULMA PACKAGINGEK BERE TSA 875 MODELO BERRIA AURKEZTU DU FRUITLOGISTICAN.



Modeloak aurreko TSA 680 modeloaren abantaila berberak eskaintzen ditu:

- Diseinu higienizagarria
- Enbasatzeko lerro osatuetan integra daiteke
- Eraginkortasun handia
- UPCn oinarritutako kontrola

Aurreko modelo ez bezala, oraingo honek maila handiagoa dauka zigilatze guneari dagokionez. Zigilatze gune maximoa 330x875 mm-koa da.

Modelo berria ULMA Packagingek termozigilatzaileen gama osatu berri baten garapenaren alde egiten duen apustu irmoaren beste adibide bat da, betiere merkatuaren eskakizunik zorrotzenera erantzuteko.



ULMA CONSTRUCTION

ULMA Experienceren arrakasta Erroman

Joan den azaroan ekitaldi bat egin zen Erromako Colonna jauregian, hiriko bihotz historikoan, ULMA Construction marka Italian sustatzeko planaren ekintzei amaiera emateko.

Ekitaldian herrialdeko enpresa eraikitzaileen eta ingeniariak eta diseinu estudio garrantzitsuenen ordezkariak parte hartu zuten, baita ordezkari instituzional nabarmenek ere, hala nola: Espainiak Italian duen enbaxadore Francisco Javier Elorza, eta Angel Torres Torres Kontseilari Ekonomiko eta Komertziala; eta Italiako Gobernuaren ordezkariak Luca Lotti Estatu Idazkaria izan zen eta, oso giro adeitsuan, merkatuaren gaur egungo egoerari eta etorkizunera begirako aurreikuspen ekonomikoak buruz mintzatu zen parte hartzaileekin.

Ekitaldia ULMA Constructionek planteatu duen strategiaren barruko beste urrats bat da, eta bezeroekin harreman sendo eta hurbilagoa ezartzeko oinarriak jartzen ditu, ULMA marka indartzeko eta sektorean duen irudia eta ospea finkatzeko.

ULMA Construction bazkide fidagarri moduan agertu da, zerbitzu bikaina eta erantzuteko ahalmen egokia eskaintzeko

gaitasunarekin, Italian bertan zein munduko gainerako lekuetan.

ULMA Constructionek hainbat arlotako 70 profesional eta aditu elkartzea lortu du, eta lanerako, esperientziak trukatzeko eta negozioa sortzeko giroa sortu du. Bezeroarekin aurretiaz eta ondoren egindako ekintza horiek guztiek arrakasta izan dutela frogatu da emaitzei dagokienez, eta, ondorioz, esperientzia beste merkatu batzuetara estrapolatu daiteke.



ULMA PIPING

ULMA Lazkao Forgingen kalitatea eta espezializazioa nabarmendu dira Valveworlden

ULMA Lazkao Forgingek Valve World Expo 2014 azokan parte hartu zuen joan den abenduan; Industria Balbulen Nazioarteko azoka bi urtean behin egiten da, Düsseldorf, eta ULMA Lazkaok bere lidergoa erakusteko aukera izan zuen, estampa itxiko forjan duen eskaintza espezializatuari esker eta piezen ekoizpenean duen kalitate bikainari esker.

Petrolio eta gasaren sektoreko balbulei buruzko Nazioarteko Azokara 12.500 profesional inguru bertaratu ziren, eta horiek guztira 664 erakusketari bisitatu ahal izan zituzten, ekitaldira zuzendutako 17.876 metro koadroko instalazioetan banatuta. Erakusketariak, zeinen artean ULMAren stand nabarmendu zen bere diseinu bereziagatik, beren soluzioak eta produktuak erakutsi zituzten, horien artean balbulak, aktuadoreak eta kontrol sistemak, fundizio piezak, balbulari lotutako produktuak, junturak, ingeniariak, elkarteak eta editorialak.

ULMA Lazkao Forgingek oso harrera ona izan zuen Azokara joan ziren profesionalen artean, eta INCONEL, MONEL, HASTELLOY edo TITANIO material maila desberdinetako Balbula Gorputz Forjatuak erakutsi zituen, neurri aukera handiarekin, 750 mm-ra arteko diametroak eta 450 kg baino gehiagoko pisuak barne. Gainera, ASME III NCA 3800 industria nuklearerako aplikazioak ere erakutsi zituen, VELANek onartutakoak, eta nazioartean indarrean dauden gainerako estandar, baldintza tekniko eta



ULMA ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

LEED ziurtagiria: konpromiso iraunkorra, ULMA konpromisoa

MUNDUAREN JOKALEKU EKONOMIKO BERRIAK EKONOMIAREN FUNTZIONAMENDUA ETA ENPRESEN ERABAKIAK INSPIRATZEN ZITUZTEN PRINTZIPIO, BALIO ETA ARAUETAKO ASKO BERRIKUSARAZI DITU.

Helburua garapen eredu orekatuagoa eta iraunkorrago lortzea da, ekonomia, baliabideak, kontsumitzeko ereduak eta, kasu zehatz honetan, eraikuntza sistemak ulertzeko bestelako modu batean oinarrituta.

ULMA Architectural Solutionsek iraunkortasunarekin, ingurumenarekin eta eraginkortasun energetikoarekin duen konpromiso irmoa ULMAK LEED Ziurtagiriari egiten dion ekarpena laburtzen duen dokumentu



honekin jartzen da agerian; proiektu bakoitzaren arabera, aztertzen diren zazpi kategorietan definitutako **110 puntu posibleetatik gehienez ere 32 puntura** iritsi daiteke:

1. Partzela iraunkorrak.
2. Urari buruzko eraginkortasuna.
3. Energia eta atmosfera.
4. Materialak eta baliabideak.
5. Barruko ingurumen kalitatea.
6. Kudeaketaren berrikuntza.
7. Eskualdeko lehentasunak.

LEED ziurtagiriak esparru osatu bat eskaintzen du eraikinen eraginkortasuna eta iraunkortasunarekin duten konpromisoa ebaluatzeko, eta, horregatik, LEED konpromisoa ULMA Architecturalen konpromisoa da, jokaleku orekatuago eta iraunkorrago baten alde, ingurumenarekiko errespetuz.

Sartu hurrengo estekan edo erabili QR kodea informazio gehiago lortzeko **ULMAK LEED Ziurtagiriari egiten dion ekarpen** zehatzari buruz: bit.ly/ULMA-LEED.



espezifikazioen arabera.

30 urte baino gehiagoko esperientziak abalatzten du ULMA Lazkao Forging, balbula gorputzak garatzeko fabrikazioari dagokionez; muturreko baldintzarik

kontrakoenei aurre egiteko egokiak dira, eta horrek balio izan du sektoreak ULMA erreferentziako eta fidagarritasun handiko hornitzaile moduan ezagutzeko.



ULMA TALDEA

ULMA Markaren Zaintza Sistema, ezagutza partekatzen tresna

ULMA Taldeak Marka Zaintza Sistema bat garatu du, ULMA Taldeari, bere Markari edo bere edozein Negoziori buruz euskarri digitalean argitaratutako eduki guztiak atzeman eta sailkatzeko aukera ematen duena, automatikoki eta etengabe.

Sistemak kanpoko kanal, aldizkari eta egunkarietan argitaratutako eta testu edo bideo moduan jasotako albisteak, artikulak eta iritziak jasotzen ditu batez ere. Plataforma euskara, gaztelania, aleman, ingeles, frantses eta polonieraz

argitaratutako eduki digitala arakatzeko diseinatu da, bilatzaileen eta ULMAri buruzko edukia izan dezaketen iturri originalen alerten aplikazioan oinarrituta.

Tresna probaldian dago orain, hobetzeko prozesu etengabea, eta, bere diseinuaren bitartez, ULMA Markaren tratamendua monitorizatu eta jatorrizko iturrietarako estekak izango dituzten txostenak eskaini nahi dira, argitaratutako informazioa berehala eskuratzeko.

Ondorengo fase batean, informazioa atzemateko sistema hori Zaintza Teknologiko moduan garatu daiteke, interesgarritzat jotzen bada, ULMA Taldeko Negozio bakoitzerako jardura, sektore edo merkatu interesgarriari lotutako edukia lantzeko, eta ikerketan laguntzeko balioko duen ezagutza emateko. Praktika horri Adimen Lehiakorra esaten zaio, eta bere oinarrian dago norberaren ingurunea

ezagutzeko eta aztertzeko beharrezko informazioa edukitzea, horren barruan egonik lehiakideak, merkatua eta bezerogaiak, enpresaren errealitatea zein den jakiteko eta are gehiago etorkizuneko aldaketei aurrea hartzeko eta joera eta aukera berriak identifikatzeko.



ULMA HANDLING SYSTEMS

Brandilik Brasilen duen Banaketa Zentro guztiz automatikoa inauguratu da

Ehungintzaren sektorean diharduen Brandili enpresak ULMA Handling Systemen guztiz automatizatu duen bere banaketa zentro berria inauguratu du; ekimenerako 70 milioi brasildar erreal baino gehiago inbertitu behar izan dira azken bost urteetan, fabrikak modernizatu ahal izateko.

Prozesua 2011n hasi zen, Plan Zuzendari baten bitartez, eta Brandiliren prozesu industrialaren eta logistikoaren hedapena ekarri du. "Proiektua mugarririk da Brasilio ehungintzaren industriarako, iraultza ekarri duelako enpresen modernizazioari dagokionez,

gaiak biltegitratzeko eta eskariak prestatzeko praktika logistiko onenen arloan", nabarmendu du Gorka Sudepe, ULMA Handling Systemen Brasilen duen Eragiketa arduraduna.

Soluzio automatizatuaren oinarrian bi FSS sistemaz osatutako sistema logistiko berritzaile bat dago, baita sailkapen automatizatorako sistema bat ere, erretilu bikoitzetarako, soluzioaren neurria egindako VMS baten bidez kudeatzen dena. Gainera, Pick to Light gailuek langileari modu intuitiboan gidatzeko aukera ematen diote eskari anitzeko prestaketa prozesuan.

Brandiliko Logistika arduraduna den Sigfrid Hornburgek dioenez, "abantaila nagusiak eskariak prestatzeko sistemen arintasunean, zehaztasunean eta kontrolean lortu dira". Automatizazioaren aurretik, Brandilik 300 kaxa prestatzen zituen orduko, eta automatizazioaren ondoren orduko 1.500 kaxa prestatzeko gai da.

Hornburg jaunak gaineratu duenez, "abantailak nabarmenak dira baita langileen segurtasun eta ergonomian eta desplazatzeko behar duten denboraren murrizketan ere".

ULMA PACKAGING

Lanera txirringan

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalek sustatutako kanpainarekin ULMA Packagingek bat egin du, eta hori dela eta hiru aparkaleku estali berri atondu ditu txirringentzat.

Lehendik ere bazauden txirringentzako aparkalekuak, baina berri hauek duten ezaugarri berezia da kanpoan daudenez estalki bat dutela.

Horrekin guztiarekin, esan dezakegu, lehenago ere lanera txirringaz joaten zen jende asko bazegoen ere, ohitura hori ULMA Packagingen gero eta indar handiagoa hartzen ari dela, ohitura guztiz osasungarria eta ingurumena errespetatzen duena izanik.



ULMA ORGA JASOTZAILEAK

Mitsubishi Caterpillar Forklift Europeko Yuichi Mano lehendakariaren bisita

MITSUBISHI CATERPILLAR FORKLIFT EUROPEKO LEHENDAKARIA DEN YUICHI MANOK ULMA ORGA JASOTZAILEAK ETA MONDRAGON KORPORAZIOA BISITATU DITU EGUNOTAN.

Bisita garrantzitsu horren testuingurua MCFEko lehendakari izendatu berria egiten ari den bidaien multzoan kokatu behar da; Miguel Cascajo du bidaide –sales manager eta bi konpainien arteko solaskide nagusia– eta markak European dituen banatzaile nagusien egoitzetan zehar ari dira bisitak egiten.

Egonaldia, laborra izanik ere, ekintzaz beteta egon zen: lan bilera batez hasi zen, eta ondoren ULMA Taldearen eta bere negozioen aurkezpena egin zen, Departamentu Zentraletan. Bileraren ostean bisita gidatua egin zen ULMA Orga Jasotzaileak-ek Oñatin dituen instalazioetan barrena, enpresaren eguneroko jardura, bere testuingurua eta gaur egungo errealitatea lehen eskutik ezagutzeko helburuarekin.

Ondoren, Ángel Sanchez, ULMA Orga Jasotzaileetako gerentea, Asier Agirregomezkorta, Produktuko zuzendaria eta Fran Fernandez, Zuzendari Komertziala eta Zerbitzuko,

gonbidatzaileak ziren heinean, interes handiz jardun ziren japoniar firmaren ordezkariak Mondragon Korporazioak Arrasaten dituen instalazioak bisita zitzan, eta bertan zuten zain Mikel Lezamiz, Hedapen Kooperatiboko zuzendaria. Lezamizek, cicerone moduan erakutsi ohi duen fintasunarekin, Mondragonen jardura enpresarial zabala eta askotarikoa ezagutarazteaz gain, mende erdi bat baino gehiagoko bizitzan lortutako mugarrietan eta gairiditutako erronketan barrena errepasoa eginez, espirtu kooperatiboaren mamia helarazi zien ezin hobeto.

Mano jaunak, ondoren egin zuen eskertzan, adierazi zuen oso harriduta geratu zela gure enpresa taldea osatzen duten jardueren berezitasunagatik, baita horiek osatzen dituen egituragatik ere.

Bisita Olandixo Baserrian egindako bazkari atsegin batez amaitu zen.



ULMA Orga Jasotzaileak
Mitsubishi Orga Jasotzaileak-ek
Espainian duen inportatzaile
ofizial eskusiboa da orain dela
30 urtetik hona.

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

Drainatzeko soluzioak Municheko BAU Azokan

ULMA Architectural Solutions bere Drainatzeko Soluzioak aurkeztu ditu Arkitektura, material eta sistemei buruzko BAU 2015 Azokan, urtarrilaren 19tik 24ra, Alemaniako Munich hirian. Sektorearen azken nobedadeak eta berrikuntzak erakutsi dira, alderdi guztietan.

ULMA MULTI V+ gama aurkeztu du, zeinean hainbat abantaila uztartzen dituen sistema bakar batean, hala nola ekonomia, moldagarritasuna eta maldarako aukerak.

Horrez gain, SARETA ARTEKATU berria erakutsi da. "T" alderantzikatuaren forma duen sareta hori bere estetikagatik nabarmentzen da bereziki, zoruan ezin hobeto



integratzen delako eta hiri paisaiarekin guztiz mimetizatzea lortzen delako.

Soluzio horiek ULMA Architectural Solutionsen eskutik datoz, izan ere, enpresa hori Eraikuntza sektoreko buruan kokatuta dago soluzio pertsonalatuari eta iraunkorrei dagokienez, Eraikuntzan Kalitatearen

sinbolo eta Bermearen ispilu izateaz gain

43 herrialdetako 1.900 erakusketari baino gehiagorekin, BAUK Messe Müncheneko esparru osoa betetzen du, 17 pabiloiekin eta 4 sarrerarekin, eta erakusketarako 180.000 m²-ko azalera gordinarekin.

ULMA HANDLING SYSTEMS

Imbanaco Zentro Medikoa (Kolonbia) funtsezko mugarrria da medikamentuak eta inputak ezin hobeto kudeatzeko



Zerbitzuaren kalitatea hobetzea, stocka denbora errealean kontrolatuta edukitzea eta medikamentuen eta inputen trazabilitatea hobetzea, horiek izan dira Ombanaco Zentro Medikoa hau bezain proiektu handiari ekiteko eraman duten beharrak.

Proiektuak Biltegi Nagusi bat dauka, eta ULMAK biltegitratze automatikarako sistema bat diseinatu du, 2 karrusel horizontalek kudeatuta, biltegiaren gordetako kudeatzeko

sistema bat ere badu, baita Pick to Light Systems dispositiboaren bitartez eskariak multzoka prestatzeko sistema bat ere.

Medikamentuak biltegitratzeko eta dosi bakarreko formatuan prestatzeko segurtasuna eta produktibitatea handitzeko helburuarekin, ULMAK karrusel bertikal bat ezarriko du Farmaziako Biltegiaren, Pick to Light sistema batez integratua, eskariak modu seguruan sailkatzen direla bermatzeko. Horrez gain, ULMAK



dosi bakarreko medikamentuak berriro enbasatzeko makineria jarriko du, eta Pick to Light sistema ezarriko du medikamentuak banatzeko orgak prestatzeko.

Imbanaco Zentro Medikoak ULMAK diseinatutako soluzio logistikoarekin hobetuko dituen beste gune batzuk plantako biltegiak izango dira (12 Zerbitzu Klinikoko). Biltegi horietan medikamentuak automatikoki banatzeko 40 modulu egongo dira, bateko eta besteko Zerbitzu Klinikoen merkantzien segurtasuna eta banaketa zehatza bermatuko dutenak.

ULMA CONVEYOR COMPONENT

Nazioartekotzea ULMA Conveyor Componentsen

2013ko amaieran BANPRO aholkularitzaren laguntzarekin negozioaren nazioartekotzea indartzeko eta garatzeko landutako hausnarketa estrategikoaren ondoren, helburuko hainbat herrialde zehaztu ziren (kontuan hartuta bolumen potentziala, prezioa, lehiakideak, barrerak eta ULMA Conveyor Componentsen gaur egungo posizionamendua). Herrialde horiek Txile, Peru eta Alemania izan ziren.

2013an dagoeneko Alemaniako lehen filial komertziala ezarri zen, eta Alemaniako Area Manager bat geneukan. 2014an zehar Txileko eta Peruko filialak ezarri dira, eta pertsona bat joan da Antofagastara, Txilera, bi merkatu horiek kudeatzeko. Une hauetan bi herrialdeetarako behar den talde komertziala sortzeko lanean ari gara.

ULMA CONSTRUCTION

ULMA Construction Méxicok bere webgunearen estreinaldiarekin ospatzen du bere 8. urteurrena



Urteurrenarekin bat eginda, ULMA Constructionek www.ulmaconstruction.com.mx webgune berria abiarazi du, Mexikoko merkatura zuzenduta erabat. Gune berria edonolako gailuetan bistaratu daiteke, produktuari buruzko informazio osatua dauka eta, gainera, klik bakar batean deskargatu daiteke.

2004an ekin zion ULMA Constructionek mexikar merkatuko bidetari, herrialdean azpiegituran egindako proiekturik handienean parte hartuz: Cajon proiektu hidroelektrikoa.

Baina 2007ra arte ez zen sortu ULMA Cimbras y Andamios de México SA de CV, egoitza Mexikoko Estatuko Tlalnepantlan kokatuta. 8 urteko ibilbidean, mexikar filialak proiektu ugari garatu ditu Obra

Zibilaren, Eraikuntzaren eta Industriako Mantentze Lanen sektoreetan.

2013an hurrengo bost urteetarako hazkunde plan anbiziotsua jarri zen martxan merkatu horretan. Horretarako, oso inbertsio handia planteatu da materialaren stockean eta merkatuan produktu berriak sartzeko lanean, horien artean MK Sistema.

Materiala azkareta eraginkortasunez hornitzen dela segurtatzeko helburuarekin, 2014an Zentro Logistiko berri bat inauguratu zen Cuautitlanen, Mexiko Hiriko iparraldean. Instalazio berriek 18.500 m²-ko azalera dute, eta horietatik 15.500 m² azpiegitura logistikoak dira eta gainerako 3.000 m²-ak nabeak eta bulegoak.

ULMA INOXTRUCK

ULMA Inoxtruck "Ekipamendu eta Instalazioen Diseinu Higienikoa" lantzeko jardunaldietan

Joan den otsailaren 21ean "EKIPAMENDUEN DISEINU HIGIENIKOA" lantzeko hitzaldi ziklo bat egin zen Valentzian, AINI Ak antolatuta, European Hygienic Engineering and Design Group (EHEDG) Espainian duen ordezkaria den heinean. Hitzaldietan hainbat hizlari parte hartuz, elikaduraren arloko enpresak ordezkaturik, horien artean Calidad Pascual egonik, baita Ainiako hizlariak ere, ekipamendu



higienizagarrien diseinuan adituak. ULMA Inoxtruckek gure ekipamenduetan egiten diren diseinuak azaltzeko ponentzia baten bitartez parte hartu zuen jardunaldietan, Gela Zurietan kargak manipulatzeko ekipamendu higienizagarrien diseinuaren inguruko praktika onen adibide moduan.

Hitzaldien arrakastaren erakuslea izandako parte hartzea handia izan zen, berrogeita hamar gonbidatu baino gehiago izan baitziren Espainiako enpresa nabarmenak ordezkaturik, horien artean Entrepinares, Casa Tarradellas, VSol eta Revlon.



ULMA CONSTRUCTION

ULMA Constructionek Indian duen presentzia indartu du BAUMA CONEXPO SHOW azokan parte hartuz

Joan den abenduaren 15etik 18ra, ULMA Constructioneko Indiako eta Zentraleko ordezkariak India Expo Centre, Greater Noida erakustazokan izan ziren, produktua erakusteko eta irudia, zerbitzua eta bezeroarekiko hurbiltasuna jendaurrean azaltzeko.

Nobedadeen aurkezpenari dagokionez, BIRAMAXek bisitariari arreta bereganatu zuen, kurbadurari dagokionez eskaintzen duen erraztasunagatik, eta hainbat erradiotara egokitze gaitasunagatik. Sistema horrekin horma zirkularrak egin daitezke, kurbatura aukera handiarekin.

Azken urteetan, eraikuntza, azpiegitura eta meatzaritzako sektoreek zabalkunde handia izan dute herrialdean. ULMA Construction, merkatu estrategiko horren alde eginez nabarmen, ikusgarritasun handiko ia 100 m²-ko stand batekin egon da presente. Eraikuntzako produktu modularren erakustetan jarri ziren murrutxo eta zutoinetarako LGW eta BIRA, CC-4 eta VR Mahaiak lauzetarako, eta obra zibileko sistemak, esaterako, MK eta T-60 Zinbria, eta horiekin batera dokumentazio zabala eskaini zen Bisitariak produktuari eta enpresari

buruzko informazio guztia eskuratu ahal izan zuten, standeko ibilbidean zehar zeuden ukimen pantailetan instalatutako aplikazio interaktibo berri bati esker.

Hirugarren edizio honetan, 26.000 bisitari eta 25 herrialdeko 635 erakusketari joan ziren eraikuntzako makineria, meatzaritzako makineria, ibilgailuak eta eraikuntzako ekipamenduak erakusten dituen nazioarteko azokara. Ekialde Ertainean eta Indian sektoreak egiten dituen azoka nagusietakoa izanik, aurtengo edizioan ekitaldia Mumbaitik herrialdeko hiriburua lekualdatu zen, Delhira.

ULMA AGRICOLA

ULMA Agricola, hotzaren aurkako babesik onena

ULMA Agricolak proiektu bat amaitu berri du Errusiako eskualde ekialdekoenean, non urteko batez besteko tenperatura -2.1°C den.

ULMA Agricolak kontuan hartu behar ditu eskualde bakoitzeko ezaugarri klimatologikoak eta ekotzi nahi den laborearen lantzeko klimari dagokionez dauden behar zehatzak, behar horiei ondoen erantzuteko irtenbidea diseinatzeko eta eskaintzeko orduan.

Errusian garatu den proiektua laborearen barruan landu ahal izateko prestatu da, baita neguan ere, tenperatura -30°C-ra ere iritsi daitezkeenean.

Proiekturako erabili den berotegi

modelo berotegi Gotikoa izan da, polikarbonatozko geruza bikoitzez estalia, pantaila termikoarekin, argiztapenarekin eta erretan berogailudunekin. Barrualdean letxugak ekoizteko dira, substraturik gabe eta hidroponian.



ULMA TALDEA

Honduras bidali da gure Elkartasun Azokan jasotako material guztia

Aurreko urteetatik ohikoa denez, joan den azaroan ULMA Fundazioak Elkartasun Azokan abiarazi zuen.

Azken honetan oinarritzko artikuluak jaso nahi ziren, Hondurasen bazterretako dagoen populazioarentzat. Xede horrekin, ULMA Fundazioa ACOES gobernuz kanpoko erakundearekin lankidetzan aritu da; irabazi asmorik gabeko erakundea da, lan egin eta denontzako mundu justuago baten aldeko ametsa errealitate bihurtu nahi duten boluntarioz osatutakoa.

Gure bazkide eta langileek borondatez eman zuten material guztia ACOESi eman zitzaion, eta ondoren Honduras bidali, martxoko kontainerrean.

Ekimenetan jardun zuten bazkide eta langile guztiek Elkarteko kide batek propio kausa honen alde emandako mihise baten zozketan parte hartu zuten. Mihisearen irabazlea hau izan zen: Jose Bellido, ULMA Handling Systemsekoa.



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

ULMA Conveyor Componentsek txirrikak jarri ditu Txileko Codelco Chuquicamata meategirako

ULMA Conveyor Componentsek txirriren eskari handi bat hornitu du Txileko Codelco Chuquicamata meategirako. Txirrirek 10 t-ko pisua ere badute, eta eskaria orain dela gutxi sortu den filial komertzialaren bitartez egin da.

Codelco munduko kobrea ekoizlerik handiena da eta, gainera, metal gorriaren munduko erreserben ia ehuneko bederatzia du bere esku.

Codelco izenak Txileko Kobreaken Korporazio Nazionala adierazten du, hau da, Txileko Estatuarena den enpresa autonomo bat, eta bere negozio nagusia kobreaken meatzaritzako baliabideen eta azpiproduktuen esplorazioa, garapena eta ustiapena, kobrea findu bihurtu arte, ondoren komertzializatzeke.



ULMA PIPING

ULMA diseinuko bridak Jamnagar Refineryn

ULMA Pipingek Indiako Jamnagarreko findegia eraikitzeke prozesuan parte hartu du, proiektuari egokitutako diseinua zuten bridak jarri. Jamnagar findegia jabea Reliance Petroleum Limited da (RPL), eta Indiako Gujarat eskualdean dago; petrolio findegiko munduko konplexurik handiena da, eta egunero 197.000 m³ ekoizteko ahalmena du, hau da, 1,24 milioi petrolio upel.

FLUOR enpresa entzutetsuak, zeinak ingeniari eta eraikuntza fasean parte hartu zuen munduan diharduten beste EPC enpresa batzuekin batera –esaterako Bechtel, UOP LLC edo Foster Wheeler–, ULMAren diseinuak eskatu zituen, eta bridez gain azkoinak, torlojuak eta junturak eskatu zituen, multzoa osatzeko. ULMAk araz kanpoko welding neck bridak hornitu dizkio Jamnagar findegia, diseinu

propiokoak: neurria 30 hazbete da, eta 1.500 Lb-ko presioa, baita 66 eta 78 hazbeteko SpacerS eta Paddles ere.

Emandako material horren hornidura ULMAk diseinuaren arloan garatu dituen gaitasunen erakuslea da. Proiektu honetan FLUORekin batera lankidetzan aritu da, India bezalako merkatu batean, non guztiz ezinbestekoa den lehiakideengandik bereiztea produktuari balioa emanez, ingeniarietako hasierako fase batetik hasita.

Briden fabrikazioa Oñatiko produkzio lerroetan egin da, eta oso ikuskapen zorrotzak izan dituzte kanpo ikuskatzaileen aldetik; horrez gain, mota guztietako saiakuntzak egin dira, materialaren kalitatea bermatzeko. ULMAk lortu duen gaitasun eta autoritate mailaren beste erakusle bat, munduko findegi nagusietako batean neurrirako soluzioa eskaintzen duelarik, India bezain merkatu berezian.



“Zorrotzak izan behar dugu egiten dugun lanarekin, bakoitza bere arloan, xehetasunik txikiena deskuidatu gabe, dauzkagun gabeziez ohartuta eta ezarritako helburuak betetzeko lan eginez



“Konbentzituta nago ULMA Taldearen laguntza gabe Kooperatiba honen etorkizuna oso konprometituta egongo zela”.

JOSEMARI AROZENA. ULMA ORGA JASOTZAILEETAKO lehendakaria

Beharbada, ULMA Orga Jasotzaileak azken urteotako krisiak Taldean gehien eragindako Negozioetakoa izan da. Josemari Arozena lehendakariarengana jo dugu, Negozioaren egungo egoerari buruz egiten dituen gogoetak jaso nahian.

“Lehenik eta behin, Josemari, zein unetan dago gaur egun Negozioa? Okerrena dagoeneko igaro dela uste duzu?”

Une honetan Negozioaren egoera orain dela bi urte eta erdi geneukana baino hobea da, eta etorkizunari beste perspektiba batetik begiratzen diogu. Duela bi urte eta erdi oso zorpetuta

geunden, eta gehiegizko egitura zegoen geneukan negozio bolumenerako. Berregituraketa handi bati egin behar izan genion aurre, pertsona kopurua %30 baino gehiago murriztuta, eta austeritate eta murrizketa neurriak hartu behar izan genituen, orain gauden lekuan egotea ahalbidetu digutenak.

Okerrena igaro den ala ez, uste dut zaila dela azken urteetan izan dugun egoera

baino okerragoa gertatzea: enpresaren ikuspegitik murrizketak, ordezkariak ixtea, proiektuak geldiaraztea eta abar gertatu badira, arlo sozialaren ikuspegitik izugarriko sakrifizioa eragin du, eta berreskuratzen zaila izango den giza kapital eta ezagutza asko galdu da. Halere, orain dela 2 urte baino hobeto gauden arren, ezin dugu horizontea bistatik galdu, 5 urte daramatzagu Negozio Maila Erlatiboa %85etik behera dugula, eta beraz bide luzea dago egiteko, iraupen luzeko karrera da.

“Zure iritziz, Taldearen elkartasuna izan da kooperatibak aurrera egiten laguntzeko giltzarrietakoa? Uste duzu Talde moduan kohesionatuta eta konprometituta gaudela?”

Inolako zalantzarik gabe. Konbentzituta nago ULMA Taldearen laguntza gabe Kooperatiba honen etorkizuna oso konprometituta egongo zela. Taldeak elkartasunerako tresna oso garrantzitsuak ditu, bai arlo finantzarioan, esaterako, emaitzen birmoldaketarekin edo kooperatiben arteko maileguekin, besteak beste, bai maila sozialean, birkokatze laguntzekin, birkokapenak oso garrantzitsuak baitira gu geunden bezalako une kritikoetan.

“Zure ustez, kooperatibek/ negozioek eta Taldeak zer tresna indartu behar dituzte inplikazio hori sendotzeko?”

Ez dut uste tresna bat edo bestea lehenetsi behar denik, uste dut egin behar duguna dela dauzkagun tresnak behar bezain malgu izatea, aurreikusten ez diren egoerei aurre egin ahal izateko, azken urteetan gertatu den bezala. Tresnak diseinatzen direnean une horretan inguruneari buruz dagoen ikuspegitik

egiten da, baina egoera berezi bat gertatzen denean, tresnak beste modu batera erabili ahal izateko behar bezain arin izan beharra dago, tresnak uneko eskakizunetara moldatzeko gaitasuna izan behar da.

“Uste duzu kooperatibek behar besteko arintasuna dugula hain ingurune aldakorrean erreakzionatzeko? Hobetzeko zer neurri edo tresna ezarri litezke?”

Hori gure erakundean antzematen dudan gabezia bat da. Talde mailan arau erraz bat onartzeko Negozioetako eta Taldeko organo guztietatik kontsulta erronda bat egin behar da, eta horrek behar baino gehiago atzera dezake arau horretan oinarrituta egongo den erabaki bat hartzea.

Kultura kooperatibaren barruan oso zaila da organoetan zehar egin beharreko ibilbide guztia saihestea, baina Taldean badaude batzorde tekniko batzuk, esaterako, Giza Baliabideak edo finantzen arlokoa, eskumen gehiago har lezaketanak.

“Azken galdera denei egiten diegun bera da. Zure ustez, ULMA Taldeak, helburu sozial bat duen Taldea den aldetik eta Fundazio bat tresna gisa edukita, bere proiektu soziala indartu eta bultzatu beharko luke?”

Kooperatiba garen heinean, xede soziala beti presente egon beharko litzateke, eta iraganean gauza asko egin dela aitortuta ere, uste dut azken urteetan, egoera ekonomikoak bultzatuta, ekintza soziala alde batera samar utzi dela, eta zeregin enpresarial hutsetan zentratu garela. Taldearen proiektu soziala, Taldeko kolektibora bertara zuzentzeaz

gain, ingurunean ere islatu behar da, inguruneari bere zatia itzultzeko.

“Amaitzeko, hurrengo Batzarrean agintaldia amaituko duzu; urte hauen guztien ondoren, mezu zehatzen bat ULMA Orgetako kolektiboari...”

Nire mezua da norabidea aldatzea lortu dugula, baina oraindik bide luzea dagoela aurrean, eta urte hauetan erakutsitako jarrera mantendu egin behar dugula. Zorrotzak izan behar dugu egiten dugun lanarekin, bakoitza bere arloan, xehetasunik txikiena deskuidatu gabe, dauzkagun gabeziez ohartuta eta ezarritako helburuak betetzeko lan eginez.

ULMA Taldeak elkartasun tresna oso garrantzitsuak ditu, bai arlo sozialean bai finantzen arloan

ULMA Taldeak **irudi korporatibo berria** aurkeztu du bere **Negoioei** eraginkortasun handiagoz erantzuteko.


ULMA GARA

Gara

"Kolektibitate baten ezaugarriak itxaropentsuena eraikitzeke bat egiten jakitea da". Jose Maria Arizmendiarraren aipuak ezin hobeto laburbiltzen du ULMAk azken 54 urteetan izan duen espiritua, ofizial mekanikari batzuen talde batek garai hartan Oñatin indarrean zebilen txokolate industrian mantentze lanak eta lan osagarriak egiten hasi zirenetik.

Ignacio Maiztegi Tailerrak gaur egun 4.500 pertsona elkartzen dituen eta 80 herrialde baino gehiagotan presente dagoen amets baten ernamuina izan ziren.

Iraganerako bidaia hori ezinbestekoa da gure oraina ulertzeko, baina are garrantzitsuagoa da etorkizuna eraikitzeke. Garrantzitsua da nondik gatozen jakitea, horrela bakarrik esplikatu baitaiteke geure burua berriro asmatzeko dugun grina mugagabea, aldaketei aurrea hartzeko eta abangoardian kokatzeko



grina, gure balioak eta erroak ahaztu gabe. Hori da hain zuzen ere ULMA Gara kanpainaren inspirazioa.

Taldearen irudi korporatiboaren aurkezpenarekin prozesu luze bati ematen zaio bukaera: ULMA Taldeko Komunikazio Batzordeak gidatu du, eta Marka eta Komunikazio Arloak gauzatu du, Negoio guzti-guztien inplikazioarekin eta, batez ere, gure bazkide eta langileen parte hartze aktiboarekin, proiektuaren giltzarria diren heinean.

Erronka bestelako Talde baten Balioak behar bezala islatzea zen, Konpromiso Sozial eta pertsonen aldeko apustu argiarekin.

Emitza rebranding prozesu sakona izan da, ULMA Taldeari Komunikaziorako Ekosistema berri bat eman diona, eta horren emaitza dira eduki, euskarri eta tresna berriak, garai berrietara egokituak,

mundu zabalean Negoio guztien jarduera modu eraginkorragoan babestu eta indartzeko. Horrenbestez, Webgune Korporatibo berria, Ikus-Entzunezko Proiektu berriak, Katalogo eta Esku Orri Korporatibo berria, Taldearen Iragarki berria eta eduki digitalen estrategia berria

joan den otsailean aurkeztu ziren, ULMA Taldeak Oñatin duen auditoriumean egindako ekitaldian, proiektuan lagundu duten enpresen eta "ULMA Gara" kanpainan parte hartu duten langile eta senideen partaidetzarekin.

> Leiho berria Mundura

Prozesuaren elementurik aipagarrienetakoa web korporatibo berri bat sortzea izan da (www.ulma.eus), mundura zabaltzeko leiho baten moduan definitu eta diseinatu dena, eta ULMAren misioa eta balioak islatu nahi dituen, Talde Soziala garen heinean ditugun nortasun ezaugarriekin. Webgune berria zabalkunderako tresna garrantzitsua da, edozein lekutatik nor garen eta zer egiten dugun ezagutzeko aukera ematen duena, baina era berean elementu egiturazailen moduan funtzionatzen duena, gure

ULMA Gara kanpainak bazkide, langile eta senide guztiei Talde desberdin bateko kide izatearen harrotasuna partekarazi die



Aitor, Jose Antonioren semea > | < Naroa, Ainararen alaba



Maddi, Jean Martinen alaba > | < Alaitz, Montseren alaba



Negozioen artean dagoen dibertsitatea ulertzen laguntzeko. Diseinu erakargarri, garbi eta oso erabilgarriekin, ULMA Taldearen webgune berriak gure Balioak islatu nahi ditu, Gizartearekin eta enpleguaren sorrerarekin dugun konpromisoa. Webgunea kanpora begirako lehen aurkezpen txartela da, eta ULMAren, bezeroen eta oro har Gizartearen arteko zubi lanak egin nahi ditu. Webgunearen funtzioak osatzeko eta ikus-entzunezkoen eta multimediaren kulturaren inguruan antolatzen den Gizarteko publiko guztietara iristeko, hainbat Ikus-Entzunezko korporatibo garatu ditu, gure indarguneak ezagutarazteko. Bideo berriak irudi zaindu baten bidez garatzen dira, eta produkzio ondoko lan profesional batean oinarritu dira, dotoretasun eta kalitate maila handia lortzeraino.

Proiektua osatzeko, Katalogo Korporatibo berria eta Iragarki berria daude, gainerako euskarrietan zabaltzen diren mezu eta balio horiek beraiek transmititzeko.

> Historia onen indarra

Prozesuak, gainera, funtsezko ideia bat ulertarazi du: ez dago historia on baino ezer eraginkorragorik.

Horregatik, eduki digitalen estrategia berri bat landu da, egunerokotasunean ULMAren parte diren pertsonen protagonizatzen dituzten historia

andanarekin, horrenbestez, Markaren komunikazioa eta kanpoko pertzepzioa indartzen laguntzeko.

Gaur egun funtsezkoa da enpresa baten ezaugarri bereziak edukien estrategia erakargarri baten bidez transmititzen eta hedatzen jakitea, publikoak erraz ulertuko dituen hurbileko historietan oinarrituta. Guri dagokigunez, gure egikera transmititzen dituzten historiak zabaldu nahi ditugu, Markaren osagai soziala presente duten eduki moldagarriak landuz. Finean, ULMAk aurkezpen txartel eguneratua dauka munduan Talde moderno eta desberdin moduan ezagutarazteko.

>Bazkideen inplikazioa eta konpromisoa

Bazkide eta langileek eta beren senideek rebranding proiektuan inplikatu izanak ideia onak ekarri ditu.

Eduki, euskarri eta tresna berriak, garai berrietara egokituak, mundu zabalean Negozio guztien jarduera modu eraginkorragoan babestu eta indartzeko.

NU Comunicación

ULMA bezalako Enpresa Talde batentzat katalogo entzutetsu bat sortzea irismen handiko erronka izan da guretzat. ULMA Taldeak munduko bazter guztietan neurri handiko proiektuak garatzeko duen ahalmenak harritu egin gaitu, eta hori guztia beraien hasierako helburua, pertsonak, bistatik galdu gabe. Azaleko orritik bertatik, zeinak pertsonak, proiektuak eta Negozioak integratzen dituen, ULMA Taldeko langileen beraien eta seme-alaben partaidetza izan duten barruko orrialdeetaraino. Espero dugu gure lanarekin ULMA hazten eta aurrera egiten lagunduko genuela.

Ikusmen

Minutu gutxitan ULMAko atmosfera jasotzea, bere ibilbidea, balioak eta, batez ere, etorkizunari aurre egiteko duen konpromisoa sintetizatzea, bideo batean bere unibertsoa adieraztea, hunkigarria bezain konplexua izan da. Eta ñabardura teknikoetatik haratago, estetikatik edo formula egokia bilatzeko izandako elkarrizketa luzeetatik haratago, bidaia honen gauzarik lilugarriena izan da, errodojeak eta muntaketak aurrera egin ahala, guztiok sentitzen ginela pixka bat gehiago ULMA, Marka honek zerbait lortzen badu, hori pertsona egiten duen guztiaren erdigunean jartzea baita.

GUK

Marka bat dagoeneko ez da argazki estatiko bat. Eta ULMA ezin hobeto ulertu dute Taldearen barruan gertatzen diren historiak formatu erakargarriekin kontatzeko ordua iritsi dela. Horregatik, plazera izan da eduki digitalen proiektu hau garatzea, ULMA bezalako Talde batentzat, ehunka historiaren protagonistak diren 4.500 pertsona baino gehiagorekin.

Coonic

Marka bat digitalizatzea. Hori zen ULMAk markatu zigun erronka. Kontakizun bat transmititu, ekosistema digital bat diseinatu eta eraiki, bere Balioak transmititzeko eta online abangoardian egoteko. www.ulma.eus webgunean erabiltzaileentzat pentsatutako gune bat garatu dugu, nabigatzeko esperientzia diferentzial bikainarekin, eta edozein gailutan disfrutatzea diseinatuta. Arkitektura egokia, eduki erakargarriak, irudi ikusgarriak eta landing pages. Ongizatea eraikitzen duten proiektuen historiak proiektatzeko gune bat, ULMAko Negozioak ezagutzeko proiektua. Eskerrik asko, orain Coonicen ere ULMAren zati txiki bat garelako.

“Nire esperientzia oso aberasgarria izan da, hein batean, ULMA Taldearen parte sentitu naizelako eta baita semearentzat esperientzia berria eta atsegina izan delako ere”. **Gustavo**, ULMA Architectural Solutionseko Fabrikazioko langilea

“Esperientziak balio izan du semeak nire lanari buruz interes handiagoa izateko. ULMAren parte sentitu da, eta hobeto ulertzen du enpresan dudana eginkizuna. Garrantzitsu ikusten nau, eta harro dago nitaz!”. **Jose Antonio**, ULMA Orga Jasotzaileetako Banatzaile Sarearen arduraduna

“Oso esperientzia polita izan da, ULMA eta neure familia elkartu dituen (gure semearen bitartez). Oro har ez naiz oso eroso sentitzen kamera baten aurrean, baina oraingoan, egoera berezia zelako eta baita profesional onen eskuetan nengoelako ere, gure seme Xabik zein neuk asko disfrutatu dugu momentuaz”.

Gurutze Murua, ULMA Constructioneko Fakturazio Prozesuen kudeatzailea



Xabier, Gurutzeren semea > | < Maider, Iñakiren alaba



June, Oihaneren alaba > | < Peio, Gustavoren semea



Kualifikazio profesionala: ERRONKA, AUKERA.



Aurkeztutako eskaintzaren helburua da inolako prestakuntzarik ez duen pertsona batek lau urtean Goi mailako Prestakuntza Ziklo batean titulua lortu ahal izatea (LH2), Fabrikazio Mekanikoko Produkzioko Programazioko edo Mekanika Industrialeko espezialitateetan.

Fagor Etxetresnen konkurtsoaren ondoren enplegu laguntzarako martxan jarri diren neurrien artean **enplegurako lanbide heziketako prozesu bat abiaraztea dago**. Prozesuaren xedea da gaur egun produkzio, muntaketa eta mantentze lanetako lanpostu jakin batzuetarako eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen lanpostu horietan sartu ahal izatea, hiruzpalau urteko epean, beharrezko kualifikazioa lortu eta gero. Ideia hori MONDRAGONen sortu zen, alde batetik, egiaztatu zelako bazkide kopuru handi bat dagoela lanposturik gabe,

eta, bestetik, horiek birkokatu ditzaketen kooperatiben beharrak bazkideek betetzen ez dituzten baldintza profesionalak dituzten lanpostuetan kontzentratzen direlako. Erantzuna berehala etorri da: **prestatu ditzagun bazkideak kooperatibek dituzten beharretan, irtenbide profesional bat eskaini ahal izateko**. ULMA Taldean kezka hori lehenago ere bazegoen, ez soilik enpleguaren krisiari erantzuteko, baizik eta prebentzio moduan ere, ULMA osatzen dugun pertsonen gure polibalentzia eta malgutasuna erraztuko duen maila profesionala izan dezagun,

gure merkatuetan eta oro har ingurunean etorkizunean gertatuko diren aldaketek erantzuteko. Horregatik, MONDRAGONen proiektu honetan parte hartzea proposatu zigitenean, ULMA Taldearen erantzuna positiboa izan zen zalantzarik gabe. Hortik aurrera, aurrera egiten jarraitzen dugun bide bat hasi da.



Aukera profesional garrantzitsua
Lanbide heziketako titulu ofiziala, estatu mailan eta gure inguruko herrialde nagusietan aitortua.

Prestakuntza Zikloaren iraupena

<p>AURRETIAZKO GABE, EDO LEHEN MAILAKO HEZIKETA, BATXILERRA EDO LH1 ETA BALIOKIDEAK</p> <p>TITULAZIORIK GABE, EDO LEHEN MAILAKO HEZIKETA, BATXILERRA EDO LH1 ETA BALIOKIDEAK</p> <p>AURRETIAZ LH2KO TITULAZIOA, UBI EDO BALIOKIDEAK, UNIBERTSITATE TITULUA EDO SARRERA PROBA GAINDITUTA</p>	<div style="border: 1px solid black; padding: 10px;"> <h3 style="text-align: center;">Goi Mailako Prestakuntza Zikloa</h3> <div style="display: flex; justify-content: space-between;"> <div style="background-color: red; color: white; padding: 5px; border-radius: 5px; text-align: center;"> Sarrera proba <small>(3 ordu egunero, 3 egun astean, irailetik maiatzera)</small> </div> <div style="border: 1px solid orange; padding: 5px;"> <p>- Fabrikazio Mekanikoko produkzioaren programazioa. Irtenbide profesionalak metala eraldatzeko produkzio prozesuetan kontzentratzen dira, eta zenbakizko kontroleko makina-erreminta autonomoki erabiltzeko kualifikatuta daude (tornuak, fresatzeko makinak, mekanizazio zentroak, zulatzeko makinak, etab.).</p> <p>- Mekanika Industriala. Irtenbide profesionalak makineria eta ekipamendu industrialak mantentzeko eta muntatzeko lanetara zuzentzen dira.</p> <p style="text-align: right;"><small>(4 ordu egunero, 4 egun astean, irailetik ekainera 3 urte)</small></p> </div> </div> <p style="text-align: center; font-weight: bold; font-size: 1.2em;">3 URTE</p> <p style="text-align: center; font-weight: bold; font-size: 1.2em;">4 URTE</p> </div> <p><small>Bi kasuetan eskola egutegia errespetatzen da, Gabonetako eta Aste Santuko oporrekin. Gainera, prestakuntza egiteko goizeko eta arratsaldeko taldeak daude, lan txandekin bateratu ahal izateko.</small></p>
---	--

INFORMAZIO GEHIAGO:

Prestakuntza egiteko, "fidantza" moduan, urte hasiera bakoitzean diru ordainketa bat egiteko eskatzen da (40 € probarako eta 500 € zikloetarako), eta hori ikasturtea amaitzean berreskuratzen da, asistentziaren eta jasotako prestakuntzaren aprobetxamenduen arabera. **Emaitza positiboak lortzen dituen pertsona bati prestakuntza guztiz doan ateratzen zaio.**

Ordaindutako baimen berezi bat ere emango da (16 ordu sarrera probarako, eta zikloetan 40 ordu ikasturte bakoitzerako), azterketak prestatu ahal izateko.

Plana Arrasateko Mondragon Goi Eskola Politeknikoan eta Bergarako Migel Altuna ikastetxean egingo da, Eusko Jaurlaritzak lanbide heziketarako sortutako eskaintza partzialaren modalitateari esker.

ULMA n beste erkide autonomo batzuetako bazkideek lanbide heziketaren inguruan izan dezaketen interesa ere aztertuko dugu, eta, eskariaren arabera, eta Ministerioaren aldetik edo gobernu autonomoen aldetik prestakuntzaren arloan dagoen eskaintza kontuan hartuta, baloratu egingo dugu zer ekimen jarri daitezkeen martxan.

Erronka, aukera: eman izena.

Une honetan ekimen honetan izena emateko aukera zabalik dago.

Bi alternatiba daude:

- 2016ko maiatzaren egingo den proba egiteko izena ematea. Proba hori 2015eko irailetik 2016ko maiatzera bitartean prestatuko da. Aurretiazko titulaziorik ez duten pertsonen interesatzen zaie, edo lehen mailako heziketa, batxilerra, LH1 edo baliokidea dutenei.
- 2015eko irailetik aurrera prestakuntza zikloetan parte hartzeko izena ematea. Aurretiazko titulazioa behar da, LH2, UBI edo baliokidea, edo unibertsitate titulua, edo sarrera proba gainditu izana.

Gainera, 2015eko irailetik aurrera prestakuntza ziklo bat egiteko izena ematen duten pertsonen ikastaro hauek izango dituzte eskuragarri 2015eko udaberrian zehar:

- Marrazki teknikoko ikastaroa, 40 ordu.
- Eskuzko makinak erabiltzeko ikastaroa: fresatzeko makina, tornua eta artezteko makina, 70 ordu.

ULMA Handling Systemsek Eroskirentzat garatutako plataforma logistikoa automatizatu du; aitzindari da European.



EROSKI aurrera egiten ari da bere plataforma logistikoak prozesu automatizatuera aldatzeko prozesuan, 2016 Plan Estrategikoaren barruan. ULMA Handling Systemsek Mondragon Unibertsitatearekin (MGEP) eta Teknikerrek in lankidetzan garatutako instalazio logistiko berriak European sektorearen abangoardian dagoen teknologia daukate, eta gaur egun plataforma logistikoak kudeatzeko dagoen prozesu automatizatuaren erakusle gorena dira.

Planta berritzaileekin, kontsumoko kooperatibak bere eredu logistikoa eraldatu eta eredu iraunkorragoa eta eraginkorragoa lortu du, dende behar dituzten produktuen eskariak sortzeko modua berrasmatu egin delako. Gertaera horri esker, plataforma Europako plataformarik berritzaileen top ten-ean dago, eta botilen eskariak automatikoki presta ditzakeen lehenengo da, azken belaunaldiko teknologiei

esker. Instalazioek, aldi berean, plantan lan egiten duten pertsonen manipulatu beharreko kargen pisuaren %70 eta bolumenaren %50 murriztea ahalbidetzen dute, lanpostuak kualifikatzen ditu, eta gainera kostu logistikoak murrizten ditu, kontsumitzaileen mesedetan.

Instalazioa modernizatuta, plataforma logistikoa "lean" industri prozesuak dituen planta baten moduan kudeatzen da, eta, horrenbestez, pisuaren %70en gestioa automatizatzea lortu da, egunero plataformatik igarotzen den 2.000 tona inguruko zirkulazioa. Bolumenari dagokionez, planta logistiko berriak EROSKIK ULMAK garatutako instalazioetan egunero banatzen dituen pickingeko 140.000 kaxen %50 modu automatizatuan kudeatzen du, hau da, 4.000 kaxa orduko.

Kooperatibak 40 milioi euro baino gehiago inbertitu du instalazio berrietan, eta bertan 400 pertsonak egiten dute lan,

ULMA Handling Systemsek garatutako proiektua Europako plataformarik berritzaileen top ten-ean dago, eta botilen eskariak automatikoki prestatu ditzakeen lehenengo da, azken belaunaldiko teknologiei esker.

26 hipermerkatu eta 325 supermerkatu zerbizua emateko.

EROSKiko lehendakariak instalazioen izaera aitzindaria nabarmendu du, erreferentzia baitira sektorean European, eta zera azpimarratu du:

"Plataforma berriekin logistikaren eremuan lortu den optimizazioaren garrantzia da funtsezko urratsa dela kooperatibaren prozesuen barne eraginkortasuna hobetzeko helburuan. Dendei behar duten zerbizua ematea ahalbidetzen du, eta horrek onura gehiago ekartzen dizkie bezeroei, aukera zabalagoak eta prezio hobekak daudelako, arintasun, malgutasun eta kostu operatiboen murrizketa handiagoari esker".

Agustin Markaide
Eroskiko lehendakaria



Berrikuntza petoa

ULMAK garatutako automatizazio sistemak merkantzia jasotzen den deskarga kaltetatik jaso eta biltegitzea ahalbidetzen du, ia manipulatu gabe. Eskarien prestaketa ere -picking-, modu automatizatuan egiten da, eta prozesu guztiak kudeatzen dituen garapen informatiko sofistikatuak denda bakoitzaren eskariak prestatzea lortzen du, establezimendu bakoitzean produktua kokatzeko duen hurrenkerari jarraituta; ondorioz, produktua errazago birjartzen da, eta prozesu logistiko osoa optimizatzen da, plataforman merkantzia hartzen denetik apalategietan jartzen den arte. Finean, sistemak denden eskariak jaso, biltegitatu eta prestatzeko prozesuak modu automatikoan egitea ahalbidetzen du, eta 1.100 produktu desberdin ere kudeatzen ditu, banan-banan errekonozituta, EROSKI denda bakoitzaren eskariak osatzeko, produktuen ezaugarrien beraien arabera optimizatutako hurrenkera bati jarraituz (pisua, neurria, hauskortasuna...), establezimendu bakoitzaren planoaren arabera duten kokapenaren hurrenkerari jarraituz, eta kasu bakoitzean baimendutako paleten gehieneko pisuari eta altuerari jarraituz.



Europako **lehen**
plataforma
logistikoa, **bere prozesu**
automatizatueta botilen
kudeaketa sartu duena

Proiektuan ezarritako soluziorik abangoardistenen artean denden eskariak prestatzeko fasean garatu den robotizazio berritzailea, horren ondorioz, EROSKiren plataforma logistikoa European lehen delarik bere prozesu automatizatuaren artean botilen kudeaketa sartzen. Prozesu teknologiko berritzaile propioa, ULMA Handling Systemsek diseinatu eta garatu duena, eta bere zailtasunaren muinean dago edari gehienek oinarri tronkonoimikoa dutela, eta denden eskariak asetzeko paleten produktu anitzeko mosaikoan beste produktuek baino portaera okerragoa dutela orekatzeko eta doitzeko.

Halaber, despaletizatze prozesu automatizatu bat ezarri da, baita produktuek planta logistikoan jarraitzen duten barne zirkuituetarako ere, sorter baten bitartez (saillatzeko sistema automatikoa), edo bitarteko biltegitaketak egiteko -kaxen eta sekuentziazioaren arabera biltegitatzea-, dendaren eskariak prest edukitzera. Onura nagusien artean nabarmentzen dira produktuen manipulazioan bertan lortutako hobekuntzak, produktibitatea hobetzea, akatsak murriztea, zerbizua estandarizatzea, kostu operatiboak murriztea... Gainera, planta logistikoko langileen lan baldintzak ere nabarmen hobetzen dira, eskuzko prestaketak eskatzen zuen esfortzu fisikoa nabarmen murriztu delako, izan ere, eskariak prestatzeko pertsona batek egunero 8.000 kilo manipulatu behar zituen.

ERRETIROAK: 2015eko urtarrilak 1 - martxoak 31

José Ignacio
Urbieta Zulaika



Marcelino
Madina Cortabarría



Ángel
Ugarte Urcelay



José Ramón
Azkoitia Arrizabalaga



Santiago
Mugica Echezarreta



Maixabel
Mendiola Ayastuy



**Eskerrik asko denoi eta ondo pasatu!
Zorionak**

ANIMATU ETA BIDALI ZURE IDEIAK

Beti bezala, Iradokizunetarako Postontzia ere erabili dezakezu zure ideiak eta iritziak bidaltzeko.

ULMA Taldea. Departamentu Zentralak.
 Garagaltza Auzoa 51 - 22 p.k.
 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
 Erref. Begira. Emaila: begira@ulma.com

Begira OnLine

ULMA Taldearen eta bere Negozioen informazio eguneratua

www.begira.ulma.com
 ULMA Taldearen Gaurkotasuna eta Albistek